

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA:

Gure produktuarekin bikotearengandik indarkeria jasaten duten emakumeei zuzenduko gatzaie. Hau da, tratu txarra jasaten duten emakumeei. Euskadin momentu honetan 4565 emakume daude Ertzaintzaren nolabaiteko babesa jasotzen dutenak, eta 4tik 3k ez dute beraien egoera salatzen. Beraz, kalkulatzen dugu 20.000 mila emakume egongo direla Euskadin tratu txar fisiko edo psikologikoa jasotzen dutenak. Egoera honen aurrean, Gipuzkoako emakumeei bideratuta egongo da gure zerbitzua. Hortaz, unibertso potentziala 7000 emakumeei zuzendutakoa da, Euskadiren %35a baitira emakume gipuzkoarrak.

Segmentazioaren barruan, Ertzaintzak identifikatuta dituen %25 horrengan jarriko dugu lehentasuna. Beraz, Gipuzkoan datuen arabera, 1800 emakume izango genituzke. Hauengana iristea, errazagoa da, Ertzaintzaren datuetan daudelako. Identifikatzeko zailtasun gehiago izango dugu beste %75erako; kasu askotan beraien egoera agertzeko beldurra izaten dutelako. Beraz, identifikazio eta merkatu lan nabarmena beharko dugu segmentu honetara heltzeko.

Horretaz gainera, gure segmentuarengana iristeko garrantzitsua da ere emakumeenganako indarkeriaren aurka lan egiten duten elkarteekin lana egitea, hauen bidez emakumeengana zuzentzeko aukera izango baitugu.

Dena den, produktua indarkeria jasateko arriskuan dauden emakumeei zuzenduta egon arren, gizarte zerbitzuaren laguntza behar dute emakumeek, gure zerbitzua ordaindu ahal izateko. Hori horrela izanda, zeharkako bezeroa Gipuzkoako Foru Aldundia izango litzateke, zehazki, Gizarte Zerbitzuen Saila.